


## Saseta-San Vicentejo

Trebiñu, Gasteizko mendietako maldetatik



### Kokapena


Ibilbideak bere osotasunean Trebiñuko lurak zeharkatzen ditu; San Vicentejo, Otxate herri abandonatua, Saseta eta Agillotik hain zuzen. Gasteizko mendien norabide paraleloan zeharkatzen ditu eta mendi hauetatik jaisten diren bi ibai gurutzatzen dira: Saraso erreka eta Aiuda ibaia

### Ibilbidearen itoki interesgarriak

**Mendandiako aztarnategia:** 70.000 hezur zatiki baino gehiago, 18.000 harri landu hondar, 1.000 puxka keramika baino gehiago, Atlantiko itsasoko oskolak eta Mediterraneokoak!!! apaingarri gisa erabiliak. Mendandiak duela 8500 eta 6400 urteetako penintsulako faunaren bildumarik onena erakusten du eta zientzialarien artean Neolitiko iberiarraren sorreran Arabako eremuaren garrantziari buruzko eztabaida pizten du berriro.

**Otxate:** 1557an despopulatua zen eta 1750<sup>a</sup> arte horrela jarraitu zuen. Urte hartan zentsuak 6 biztanle zituela agertzen du. Baina XIX. mendean Otxatek lortutako ongizate eta hazkundeak eskualde osoko herririk populatuena bihurtu zuten. Garai honetan hasi zen balizko madarikazioa. Hamar urteetan hiru izurritek herritar guztiak desagerrarazi zituzten.

**San Vicentejoko basiliza:** Zalantzarik gabe, San Vicentejoko "La Concepción" basiliza Trebiñuko konterriko harribitxi artistikorik balioetsuena da.



## IBILBIDEA

**0 Km. / 0h. 0'** **Saseta** herrian hasiko da gure ibilbidea, herriaren bukaeran (Okinarantz) dagoen aparkatzeko lekuan, hain zuzen ere. Sakanan barneratzen den harrizko bidea hartuko dugu. Lehenengo tarte honetan *GR-38*ko 4. etaparekin bat egingo dugu. Hurrengo bidegurutzean ezkerreko aukera hautatuko dugu sakanaren sakonera jaisten. Oso estua den harrizko zubi batetik *Mazuzea erreka* gurutzatuko dugu, gure eskuinetara jaitsiko gara *Aiuda ibairaino*. Handik metro gutxitara eta gure aurrean metalezko ate bat agertuko denean, bidea utziko dugu ezkerretik, oso zaharra eta trauskila den egurrezko zubi batetik, ibaiaren beste aldera pasatzeko. Behin beste aldean egonda, igotzen hasiko gara, alanbrada pasatu eta gero. Maldatik igoko gara oso zidor estu batetik. Berehala eskumatara joko du eta lautu egingo da, berriro ibaiaren ondoan ibiltzeko baina kasu honetan bere ezkerreko aldetik.

**1,5 Km. / 0h. 35'** Une batean ikusiko dugu nola gura bideak ezkerretarantz 90° bira bat egiten duen eta aldapa gogor bat hasten den. Altuera irabazten jarraituko dugu baina orain astiro. Harkaitzen artean oso bide polit batetik **Mendandia aztarnategia** dagoen terrazara helduko gara, non duela 8000 urteko hondarrak aurkitu dira. Garrantzi arkeologikoaz gain lekuaren edertasuna aipatzekoa da ere, ur jauzia eta ehunka urteko erkametzak nabarmentzen dira. Jarraituko dugu, aztarnategia gure ezkerrean uzten eta erreka ondoan ibiltzen. Aldapa leun bat gainditu eta gero, pista belartsu eta zabal batekin egingo dugu topo, zein eskuinera jarraitu beharko dugun. Tarte luze batean ibili beharko dugu pista honetatik altuera irabazteko poliki-poliki. Metalezko alanbrada batzuk dagoen lekura ailegatzean, ezkerreko gurutzatu beharko dugu, jaisten hasteko. Bide zabal honen eskuinetan alanbrada batek mugatuta dago. Ereku ireki batera heldu eta gero, eskuinetara joko dugu alanbradaren ondoan ibiltzen jarraitzen.

**4,5 Km. / 1h. 30'** Bidea jarraituz, leku batera helduko gara non abereen presentzia nabarmena izango den, lurra zapalduarengatik eta bidearen ondoan dagoen lasto-azaoagatik. Pista areetsu batetik jaitsi eta gero lehenengo bidegurutze batekin elkartuko gara non ezkerretara biratu beharko dugun eta aurrerago beste batekin, kasu honetan zuzen jarraituz. Puntu honetan *Saraso*, *Pedruzo*, *Armentia* herriak eta *Txulato*, *Cerro de Trebiño* mendiak kokatu ahal izango ditugu. Desbideraketarik hartu gabe jaisten jarraituko dugu, leku ireki batera heldu arte. Leku ireki honetan hesola pilaketa batzuk ikusiko ditugu. Eskuinetan dagoen alanbrada zeharkatu beharko dugu bide buztintsu batetik igotzen hasteko. Ereku lokatu batera heltzerakoan, alanbradaren beste aldera pasatu beharko dugu ekartzen dugun norabidea mantenduz. Harri beltzeko pista batek **Agillo** herrira eramango gaitu. Aldapa gogor batetik jaisten herrian sartuko gara.

**6,45 Km. / 0h. 0'** **Agillon**, eliza gaindituko dugu, herriaren goiko partea bilatuz. Azken urbanizazio pasatu eta gero ezkerretara joko dugu artean artean ibiliz. Beste ereku urbanizatu batera helduko gara, zein atzean utziko dugun zuzen jarraituz. Argindar dorretxo bat ezkerretara ere utziko dugu. Zuzen jarraituko dugu desbideraketarik hartu gabe. Hurrengo bidarte batean zuzen jaisten dena aukeratuko dugu. Aldapa gora eta behera tarte bat pasatu eta gero, beste hezi bat pasatu beharko dugu eta berehala **Otxate** herri abandonatutara helduko gara. Bere dorre famatua bisitatu eta gero. Erreka zeharkatu eta lur pista jarraituko dugu. Toki batzuetan lokatza ikusiko dugu. Inguru honetan eskubitako desbideraketa hartuta

**11 Km. / 3h. 30'** **San Vicentejo**